

Gu Ainhoa, Glen, Beñat eta Naroa gara, proiektu honen sortzaileak. "Pokino" izeneko taberna bat sortzea erabaki dugu. Bertan gosariak, bazkariak eta afariak eskaintzeaz gain hizkuntza desberdinak (frantsesa, euskara, gaztelania eta ingelesa) hitz egiten duten monitoreak kontratuko ditugu. Horiek astero hizkuntza desberdin horiek erabiliz, saioak egingo dituzte bezeroei hizkuntzak erakusteko asmoz. Igandeetan gainera pelikula saioak ere eskainiko ditugu aste horri dagokion hizkuntzan eta adin desberdinetara egokitutako bi txandetan, helduentzat eta umeentzako pelikulak bereiziz ordutegi desberdinetan.

